



URTEKO/IKASTURTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Ikastetxea:	IKASBIDEA IPI	Kodea:	010012
Eta:	DBH	Zikloa/Maila:	3
Arloa/Irakasgaia:	GEOGRAFIA-HISTORIA		
Osatutako arloak/Irakasgaiak			
Diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak	a) Konpetentzia sozial eta zibikoa b) Arterako kompetentzia c) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia		
Irakasleak:	Mikel Cortès Maite Sanz Olatz Ormazabal	Ikasturtea:	2021/2022

Zeharkako konpetentziak
<p><u>ZEHARKAKO KONPETENTZIAK*</u> (Ikusi eranskina: “ZEHAR KONPETENTZIAK ETA ADIERAZLEAK”)</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Hitzez, hitzik Gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia. 2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia 3. Elkarbizitzarako konpetentzia. 4. Ekimenerako eta ekiteko espirtu ekintzailerako konpetentzia 5. Izaten ikasteko konpetentzia.

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
<ol style="list-style-type: none"> 1. Munduan, historian zehar eman diren gobernatzeko eredu nagusiak kontuan hartuz, antolaketa politikoaren eredu nagusiak ezagutzea eta bereiztea, bakoitzaren alde positiboak eta negatiboak ohartzeko. (*) 2. EBren, Espainiaren eta Euskal Herriaren (berezi EAE) antolaketa politikoak aztertzea, antzekotasunak eta ezberdintasunak bereiztea, gobernu eta administrazio era ezberdinak hobeto ezagutzeko eta ulertzeko. (*) 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Munduan eman diren antolaketa politiko eredu nagusiak eta bakoitzaren alde positiboak eta negatiboak bereizten ditu. 2. EBko, Espainiako eta Euskal Herriko mapetan banaketa politiko-administratibo nagusiak identifikatzen eta kokatzen ditu eta beren antolaketa politikoaren oinarriak eta gobernu eta administrazio era desberdinak bereizten ditu.

<p>3. Globalizazioa sortzen duten faktoreak eta globalizazioaren ezaugarri eta ideologia nagusiak identifikatzea, bizi garen mundu globalizatua hobeto ulertzeko.</p> <p>4. Garapena, ongizatea eta ingurumena kontzeptuak bereiztuz, hiru kontzeptuen arteko loturaz ohartzera, garapen iraunkorraren aldeko jarrera arduratsuak sustatzeko.</p> <p>5. Mundu mailan zein gure inguru hurbilean azaltzen diren arazo nagusiak -politikoak, sozialak, kulturalak, ingurumen arlokoak...-identifikatzea, beraien aurrean kontzientzia hartzeko eta jarrera kritikoa izateko.</p> <p>6. Informazio iturri ezberdinetan oinarrituz (testuak, grafikoak, komunikabideetako informazioa...), jarduera ekonomikoen bilakaera historikoa aztertzea, gaur egun aurkezten dituen ezaugarriak eta arazoak hobeto ulertzeko. (*)</p> <p>7. Aro Modernoko gizartean, politikan, ekonomian eta kulturen ematen diren berrikuntzak identifikatzea, ondorengo urteetan eta eremu ezberdinetan izango duten eraginaz ohartzeko. (*)</p> <p>8. Errenazimentuko eta Barrokoko ezaugarri nagusiak identifikatzea, beraien arteko bereizketak egiteko gai izateko eta artelanak balioesteko.</p>	<p>3. Globalizazioa sortzen duten faktoreak eta globalizazioaren ezaugarri eta ideologia nagusiak azaltzen ditu.</p> <p>4. Garapena, ongizatea eta ingurumena kontzeptuak bereizten ditu eta hiru kontzeptuen arteko loturak egiten ditu.</p> <p>5. Mundu mailan zein gure inguru hurbilean azaltzen diren arazo nagusiak -politikoak, sozialak, ingurumen arlokoak...- identifikatzen ditu eta azterketa kritikoa egiten du.</p> <p>6. Jarduera ekonomikoen bilakaera historikoa eta gaur egungo ezaugarriak eta arazo nagusiak azaltzen ditu eta ondorioak ateratzen ditu.</p> <p>7. Aro Modernoko gizartean, politikan, ekonomian eta kulturen ematen diren berrikuntzak azaltzen ditu.</p> <p>8. Errenazimentuko eta Barrokoko ezaugarri eta artelan nagusiak identifikatzen ditu, beraien arteko bereizketak egiten ditu eta artelanak balioesteko gai da.</p>
---	---



EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
1. EBALUAZIOA	2. EBALUAZIOA	3. EBALUAZIOA
- Munduaren antolaketa politikoa.	- Bigarren sektorea: Meatzaritza, energia, industria.	- Aro Modernoa: aro berri bat.
- Mundua, ekonomia globalizatu bat.		- Aro Modernoa Europan.
- Lehen sektorea.	- Hirugarren sektorea: Zerbitzuak.	- Errenazimendua eta Barrokoa.

ARAZO EGOERA: Ikaskideen artean kurtso bukaerako ikasbidaia antolatzen ari zarete, baina ez zarete ados jartzen herrialdea aukeratzeko orduan. Binakako taldeetan, herrialde bat aukeratu eta gelakideen aurrean aurkezpen bat prestatu beharko duzue gainontzekoak konbentzitzeko. Zuek aukeratutako herrialdearen ikerketa lanean testuliburuan landutako edukiak praktikan jarri beharko dituzue, politika, ekonomia, mapa fisikoa, biztanlegoa, eta beste hainbat arlo aztertuz. Horretarako, zenbait hilabetetan zehar aurkezpena burutzen joango zarete, edukiak ikasgelan landu ahala garatuz.

ARAZO EGOERA: Gelakideekin Errenazimendu eta Barrokoko artea ezagutzeko bisita gidatu bat egitekoak zarete. Bisita gidatua Gasteizen bertan da, gure hiriko Errenazimendu eta Barrokoko obra ezagunenak ezagutzeko helburua du. Bisita gidaria ordea, gaixo jarri da, eta irakasleak gelakideei obra hauen inguruko informazioa prestatzeko eskatu dizue. Taldeka, bakoitzak obra baten inguruko informazioa bildu beharko duzue eta klasearen aurrean aurkeztu.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGIA

- Gai bakoitzaren hasieran irakasleak gaiari buruzko sarrera bat egingo du, lehenengo ikuspegi orokorra emateko. Azalpenean zehar eta ondoren ikasleei galderak egingo zaizkie gaiaren inguruan dakitena ikusteko (aurrezagutza). Ondoren, irakasleak gaiaren inguruan sortutako materialen eta testuliburuaren laguntzaz azalpenak eman eta sortzen diren zalantzak argituko ditu.

- Irakasgaiak eduki teorikoak eta praktikoak izango ditu. Eduki teorikoak azaldu ondoren ikasleei galderak luzatuko zaizkie, ikasle eta irakasle arteko interakzioa lortzeko. Azalpenen ondoren gaiaren inguruko ariketa praktikoak burutuko dira. Gaia bukatzean, irakasleak gai osoa errepasatuko du, ideia nagusiak bilduz.

- Ikasgelan landutako edukiak praktikan jarriko dira irakasleak prestatutako ariketa eta ikerketa lanaren bidez ("Nire herrialdea"). Era honetan, irakasgaia modu aktiboan landuko da edukiak praktikara eramanez. Ikerketa lan hau egiteko IKTak erabiliko dira, eta horrekin lotuta ariketak *Classroom* bidez bideratuko ditugu.

- Historiako gaia lantzean generoaren ikuspegia kontutan hartuz landuko dira.

BALIABIDEAK:

Irakasleak banaturiko apunte eta ariketak.
 Testuliburua: "Geografia eta Historia", Santillana.
 Internet: Classroom, emaila, Drive, Kahoot...

OHARRA: Egungo larrialdi egoera dela eta (COVID-19), ikasleak konfinatuta egongo balitz, irakasleak metodologia eta materiala egoerara egokituko lituzke. Kasu horretan Classrooma erabiliko litzateke oinarrizko baliabide gisa.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...] 	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
<p>Ebaluazio bakoitzeko gutxienez bi azterketa egingo dira. Bertan edukien inguruko galderak eta ariketak burutu beharko ditu.</p> <p>Ebaluazioan zehar eskatutako ikerketa lanak eta ariketak burutzea derrigorrezkoa izango da eta ikasleak epeen barruan entregatu beharko ditu lanak.</p> <p>Zehar konpetentzien barnean, interesa, parte hartzea, lana, ahalegina eta portaera hartuko dira kontuan, beste aspektu batzuekin batera. Arlo hauek gelako behaketa zuzenaren bitartez jarraitu eta INIKAN erregistratuko dira egokiak ez direnean.</p>	<p>Ebaluazioa gainditzeko, hiru alderdiak (kontzeptuak, prozedurak eta zehar-konpetentziak) gainditzea ezinbestekoa izango da (Nota: 5).</p> <ul style="list-style-type: none"> -%60 eduki kontzeptualak (azterketak) - %20 prozedurak (ikerketa lanak, ariketak...) -%20 zehar konpetentziak (interesa, partehartzea, portaera, puntualitatea...) <p>KONTZEPTUAK: Idatzizko probak (%60) Kontzeptuak azterketen bidez neurtuko dira. Ebaluazio bakoitzean gutxienez bi azterketa egingo dira. Bertan azalpen galderak eta prozedurak era egokian burutzea eskatuko da. Ez da azterketen arteko mediarik egingo, hauetariko batetan 4 baino gutxiago ateratzekotan.</p> <p>PROZEDURAK (%20) - Ebaluazioan zehar burututako ariketak eta lanak baloratuko dira, bai banakakoak zein taldekakoa, eta hauek garaiz entregatu beharko dira. - Prozedura atala gainditzen ez bada (gutxieneko nota 5 ez bada), prozeduren atala suspenditu egingo da eta beraz, baita ebaluazioa ere. Egin gabeko ariketak berreskurapen egunean entregatu beharko ditu. - Ebaluazioa prozeduren atalagatik suspenditzen bada, baina azterketak gainditu badira, azterketen nota gorde egingo da.</p> <p>ZEHAR KONPETENTZIAK (%20) Zehar konpetentziak notan kontutan hartuko dira. Atal hau suspendituz gero, gainditzeko</p>



	<p>hurrengo ebaluaketan zehar hau zuzendu eta mantendu beharko du.</p> <p>Gelan ikasgaiarekiko jarrera, parte-hartzea eta interesa baloratuko dira, baita etxerako lanak edo eguneroko ahalegina seriotasunez hartzea. Ez da onartuko ikasleen arteko zein irakaslearekiko errespetu faltarik. Atal hau behaketaren bidez baloratuko da klasean eta INIKAn erregistratuko da.</p> <p>(Ikusi <u>“Zehar konpetentziak eta adierazleak”</u> eranskina)</p> <p>OHARRA: Gaur egun bizi dugun larrialdi egoera dela eta (COVID-19) ikasleak konfinatuko balitz, irakasleak beharrezko ikusten dituen ebaluazioaren inguruko egokitzapenak egingo ditu, aipatutako arloek hartuko duten pisuari dagokionez eta ikasgaiari dagozkion beste aspektu batzuei dagokionez ere.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].</p>	
<ul style="list-style-type: none">- Ebaluazio bakoitzean berreskurapen azterketa bat egingo da. Hauek gainditu ezean azken ebaluazio azterketa egin beharko dute ikasleek.- Berreskurapen azterketa gainditzen bada, berreskurapen nota ez da 5 baino gehiago izango.- Zehar konpetentziak berreskuratu ahal izateko, ikasleak hurrengo ebaluaketa osoan atal hau zuzendu beharko du.- Azterketetan argitasuna, garbitasuna eta egokitasuna baloratuko dira.	

OHARRAK

Eskatuko diren gutxieneko jarrerazko edukiak hauek izango dira:

1. Errespetua bai ikasleekiko eta baita irakaslearekiko ere.

2. Klasetan parte hartzea:

- Jarrera aktiboa eta positibo
- Lan pertsonala egitea.
- Talde lanetan parte hartzea.
- Klaserako beharrezkoa den materiala ekartzea.
- Lanen eta jardueren epeak betetzea.
- Hutsegiteak egin ondoren, egunean jartzea.
- Egingo diren ekintza osagarrietan parte hartzea eta jarrera ona erakustea.
- Irakasle eta ikasleekiko errespetua.
- Elkarrizketa eta debateetan jarrera baikorra.
- Bai gelan bai koadernoetan txukuntasuna eta garbitasuna.
- Puntualtasuna

ERANSKINA: "ZEHAR KONPETENTZIAK eta ADIERAZLEAK."

GEOGRAFIA ETA HISTORIA ARLOAREN ZEHAR KONPETENTZIEN BALORAZIOA: %20

KONPETENTZIEN EZAUGARRIAK	ADIERAZLEAK	ZEHAR KONPETENTZIAK	ARLOAREN BALORAZIOA
			%20
Eskolako pertsonetikiko errespetua eta portaera ona	Errespetoa erakustea (irakasleak eta ez-irakasleak langileak, ikaskideak,...). Modu atseginez jokatzea harremanetan. Harreman sozialetan jarrera irekia erakustea inor ez baztertuz. Denon eskubide eta betebeharrak onartu eta errespetatzen ditu bazterkeria errefusatuz.	EK IIK IIK	%5



<p>Beste ideia eta iritzien errespetua erakustea.</p>	<p>Eztabaida-prozesuetan besteen ideiak eta iritziak errespetatzea oinarritzko arau sozialak era demokratiko eta baketsuan erabiltzea: hitz egiteko txandak, kortesia-arauak, erregistroa, tonuera, hitzik gabeko hizkuntza.</p> <p>Norberaren ideiak defendatzea era logikoan argudiatzea eta lankidetzatza modu gisa aldentzea.</p> <p>Besteen ideiak, arrazoiak eta sentimenduak entzuten ditu, beste aldeak arrazoiak izan dezakeela onartzen du eta bere ideiak era asertiboan eta errespetuzkoan defendatzen ditu.</p> <p>Besteen lana errespetatzea eta zaintzea.</p> <p>Era kritikoan azaltzea era askotako gaiak buruzko iritzia pertsonala, komunikazio digitalaren eta hitzezkoaren (ahoz nahiz idatziz) askotariko moduak erabiliz.</p>	<p>HDKK</p> <p>EK</p> <p>IPIK</p> <p>IIK</p>	
<p>Material didaktikoaren errespetua erakustea.</p>	<p>Norberaren material eta baliabide didaktikoaren zaintza, garbitasuna, txukuntasuna, ordena,... erakustea.</p> <p>Besteen material didaktikoa errespetatzea.</p> <p>Amankomuneko materiala (edota maileguz lortutakoa) era egokian erabiltzea eta zaintzea.</p> <p>Jabetza intelektual errespetatzen du.</p>	<p>EK</p> <p>IIK</p>	
<p>Arloaren balorazio positiboa erakustea.</p>	<p>Arloa ikasteko konprometzua hartzea</p> <p>Arloarekiko errespetua eta portaera ona erakustea.</p> <p>Ikasteko motibazioa bereganatzea.</p>	<p>IPIK</p> <p>EEEEK</p> <p>IIK</p>	
<p>Elkarbizitzako arauak errespetatzea</p>	<p>Era egokian erabiltzea harreman sozialeko oinarritzko arauak, ingurune birtualetan eta aurrez aurrekoetan</p>	<p>EK</p> <p>IIK</p>	
<p>Arloarekiko interesa erakustea (aditasuna, irakurketak, elkarrizketak, elkarkidetzatza, lan egiteko konprometzua,...)</p>	<p>Klaseko aditasuna azalpenetan, eztabaidetan,... erakustea.</p> <p>Klaseko jarraipena, (irakurketan, azalpenetan, eztabaidetan, elkarrizketetan, aurkezpenetan...)</p> <p>Talde lanetan elkarkide moduan lan egitea oportazio positiboa emanez.</p> <p>Norberaren eguneroko lana era egokian gauzatzea.</p>	<p>HDKK</p> <p>IPIK</p> <p>EEEEK</p> <p>IIK</p>	<p>%5</p>

<p>Klasean parte hartzea</p>	<p>Azalpenetan aditasuna eta zentzudunezko galderak eta aportazioak egitea.</p> <p>Jardueretan modu aktiboan parte hartzea.</p> <p>Lan egiteko prest egotea.</p> <p>Taldeko lanetan parte hartzea.</p>	<p>HDKK</p> <p>IPIK</p> <p>EK</p> <p>EEEEK</p> <p>IIK</p>	
<p>Puntualitatea (eta lanak entregatzeko epeak...)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lanak entregatzeko epeak errespetatzea - Puntualitatea klasean - Puntualitatea jardueretan 	<p>EK</p> <p>EEEEK</p> <p>IIK</p>	
<p>Ikasle moduan ardura erakustea (norberaren material didaktikoa eta lanaren zaintza, ikasteko konpromezua, erantzukizuna, ...)</p>	<p>Ardurak hartzen ditu, bere lan pertsonala antolatzen du eta berrikusi egiten du amaitu ondoren.</p> <p>Baliabide didaktikoen zaintza</p> <p>Ikasteko konpromezua eta prest egotea.</p> <p>Jardueretan parte hartu modu aktiboan,</p> <p>Ikasitakoaz jabetzen da</p> <p>Bere erabakiek gainerako pertsonengan eragin dezaketela onartzen du</p>	<p>IPIK</p> <p>EEEEK</p> <p>IIK</p>	<p>%5</p>
<p>Autonomia eta auto-kontrola (, , , , seriotasunez jokatzeari)</p>	<p>Betebeharrak egitea denbora aprobetxatuz eta epeak betez.</p> <p>Era egokian ebaluatzen ditu bere aurrerapenak</p> <p>Autoebaluazioa egitea hobeto ikasten laguntzen dioten baliabideak eta estrategiak identifikatzen ditu.</p> <p>Ikasteko autoestimua</p> <p>Erabakiak hartzea, estrategia eta teknika egokiak erabiliz.</p> <p>Iturri desberdinak erabiliz informazioa bilatzea eta kudeatzea.</p> <p>Ikastean seriotasunez jokatzeari.</p> <p>Bere emozioak onartu eta erregulatzeko baliabideak eta estrategiak erakustea.</p>	<p>IPIK</p> <p>EK</p> <p>EEEEK</p> <p>IIK</p>	



Euskara, hizkuntza behikularra bultzatzea.	Euskara erabiltzea eskolako jarduera guztietan: lan egitean klasean eta lan-taldeetan, zein jolastean patioan. Ahozko eta idatzizko testuak ulertzea eta sortzea ezarritako jarraibideei segituz. Ikasgaiko hiztegi tekniko, sinbolo, grafiko eta ohiko beste zeinu batzuk interpretatzea eta erabiltzea. Arloaren gaiei buruzko iritzi pertsonala ematea ahoz zein idatzizko hizkuntza erabiliz. Askotariko testu motak ulertzea, interpretatzea eta erabiltzea. Hizkuntzaren erabilera egokia eta akatsen zuzenketa gauzatzea Etengabeko hizkuntz hobekuntzarako prest egotea Kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak ahoz zein idatziz adieraztea.	HDKK IPIK EEEEK IIK	%5
			GUZTIRA: %20

HDKK: Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentziak.

IPIK: Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.

EK: Elkarbizitzarako kompetentzia.

EEEEK: Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.

IIK: Izaten ikasteko kompetentzia.